



3HI-113/04-P05-TR  
GHI-121/04-P05-TR

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL  
HERRIKO LURRALDEAREN  
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO  
IDAZKARIAK

TEODORO OLEA ITURREGI,  
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL  
PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT, Vitoria-Gasteizen otsailaren 23an Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 1/2006 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuak aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

CERTIFICO: Que, en la Sesión 1/2006 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 23 de febrero, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, el siguiente acuerdo:

I. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera; Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen 2005eko otsailaren 2ko aurreko txostenean ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez (Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentua bideratzea zela-eta, eman zen txosten hori), Oñatiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginari buruzko txostena ematea; honakoa, hain zuzen ere:

I. Informar el Texto Refundido del documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal del municipio de Oñati, de conformidad con lo establecido en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en relación con el cumplimiento de las condiciones establecidas en el anterior informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de fecha 2 de febrero de 2005, emitido con motivo de la tramitación del documento de Revisión de Normas Subsidiarias, en los siguientes términos:

## 1. TXOSTENEAN LOTESLEAK DIREN ALDERDIAK

## 1. ASPECTOS CUYO CARÁCTER DE INFORME ES VINCULANTE

### 1. Lurralde-antolamenduaren arloan

### 1. En materia de Ordenación del Territorio.

A) Lurralde-antolamenduko tresnetara egokitzea

A) Adecuación a los Instrumentos de Ordenación Territorial.

- EAeko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, Debagoieneko Lurraldearen Zatikiko Planean eta Lurraldearen Arloko Planean ezarrita dauden eta espediente honi eragiten dioten xedapenekin lotuta, aurreko txostenean jasotako baldintzak betetzeari dagokionez, aldeko balorazioa eman da.

- Se valora favorablemente el cumplimiento otorgado por el Texto Refundido a las condiciones recogidas en el anterior informe en relación con las determinaciones que afectan al presente expediente establecidas en las Directrices de Ordenación Territorial de la C.A.P.V., Plan Territorial Parcial del Alto Deba y Planeamiento Territorial Sectorial.



B) Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzorua

- Urkuluko esparruari dagokionez, dokumentuan jasotako proposamenari aldeko balorazioa eman zaio, hura eremuaren balio naturalekin eta behin betiko onartutako Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Planean bildutako aurreikuspenekin bat datorrela irizteagatik.

C) 17/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza-plangintzako zein -kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzkoa.

- HE.I 35 Kasablanka esparruan, 17/1994 Legean ezarritako babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba betetzeari dagokionez, aldeko txostena ematea.
- II.10 San Martinaldea eremuari dagokion babes ofizialeko 196 etxebizitzaren erreserbari aldeko txostena ematea (esparruan aurreikusitako etxebizitzaren % 65).
- HE.II.2 Kirruka eta HE.I.51 Lazarraga eremuari dagokionez, horietako bakoitzean 17/1994 Legean ezarritako BOEko erreserba bete behar dela oinarritzat hartuta, espeditentean baldintza hau jaso beharra dago: eremu horietakoren batean exijitutako estandarra ezabatuko balitz, bestean aurreikusitako erreserbarekin hura konpentsatuta (kontuan izan behar da bi esparruek lurzoru-sailkapen desberdina dutela), konpentsazio horretarako, 17/1994 Legearen 5.2 artikuluan ezarritako aurretiazko baimena beharko litzateke.

D) Testu Bateginari aldeko txostena ematea, Batzorde honek aztertutako aurreko dokumentuarekiko honako honetan gaineratutako doikuntzei dagokionez. Doikuntza horiek txostenean lotesleak diren alderdiei eragiten die.

## 2. Landa-garapenaren arloan

AASSetako araudi orokorrean, abeltzaintzako ustiatagietako arau teknikoak, higieniko-

B) Suelo destinado a Actividades Económicas.

- Se valora favorablemente la propuesta contenida en el documento en relación con el ámbito de Urkulu, por considerarse que la misma es acorde con los valores naturales que presenta el área y con las previsiones contenidas en el Plan Territorial Parcial del Alto Deba definitivamente aprobado.

C) Ley 17/1994, de 30 de junio, de medidas urgentes en materia de vivienda y tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión urbanística.

- Informar favorablemente en relación con el cumplimiento de la reserva de viviendas de protección oficial establecida en la Ley 17/1994 en el ámbito A.U.I.35 Kasablanka.
- Informar favorablemente la reserva de 196 viviendas de protección oficial que le corresponde al Área II.10 San Martinaldea. (65% del número de viviendas previsto en el ámbito).
- Por lo que respecta a las áreas A.U.II.2 Kirrukua y A.U.I.51 Lazarraga, partiendo de la necesidad de dar cumplimiento en cada una de ellas a la reserva de V.P.O. establecida en la Ley 17/1994, debe introducirse en el expediente la condición de que si se suprimiese el estándar exigido en alguna de dichas áreas, planteándose su compensación con la reserva prevista en la otra, teniendo en cuenta que se trata de dos ámbitos que disponen de diferente clasificación de suelo, dicha compensación requeriría la previa autorización establecida en el artículo 5.2. de la Ley 17/1994.

D) Informar favorablemente el Texto Refundido en relación con los ajustes introducidos en el documento con respecto al anteriormente analizado por esta Comisión, y que afectan a aspectos cuyo carácter de informe es vinculante.

## 2. En materia de Desarrollo Rural

Deberá incluirse en la normativa general de las NNSS, la mención al Decreto 141/2004,



sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuaren aipamena gaineratu beharko da.

Era berean, araudi orokor horretan, landa-ingurunekeo turismo-ostatuak arautzen dituen maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretuaren, eta hura aldatzeko den 210/1997 Dekretuaren aipamena gaineratu beharko da.

## 2. TXOSTENEAN LOTESLEAK EZ DIREN ALDERDIAK

### 1. Uren Zuzendaritza

Otsailaren 15ean Uren Zuzendaritzak luzatutako txostenaren arabera, txosten horretan adierazitako baldintzak betetzea gomendatzen da. Baldintza horiek txosten honen edukian jasota daude.

### 2. Biodibertsitatearen Zuzendaritza

Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak 2006ko otsailaren 20an luzatutako txostenaren hirugarren puntuan bildutako baldintzak betetzea gomendatzen da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, Uren Zuzendaritzak, Biodibertsitatearenak, Landaren eta Itsasertzaren Garapenekoak, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietakoak emandako txostenak, ziurtagiri honen I., II., III. eta IV. eranskin gisa gaineratzen direnak.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2006ko martxoaren 3an.

de 6 de julio que establece las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.

Asi mismo se incluirá en la citada normativa general, la mención al Decreto 128/1996, de 28 de mayo que regula los establecimientos de alojamientos turístico en el medio rural y su modificación por el Decreto 210/1997.

## 2. ASPECTO CUYO CARACTER DE INFORME NO ES VINCULANTE

### 1. Dirección de Aguas.

De acuerdo con el informe emitido por la Dirección de Aguas en fecha 15 de febrero, se recomienda dar cumplimiento a las condiciones señaladas en el mismo y recogidas en el cuerpo del presente informe.

### 2. Dirección de Biodiversidad.

Se recomienda dar cumplimiento a las condiciones recogidas en el punto tercero del informe emitido por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental de fecha 20 de febrero de 2006.

II.- Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa los informes emitidos por las Direcciones de Aguas, Biodiversidad, Desarrollo Rural y Litoral, y Vivienda y Asuntos Sociales que se acompañan como Anexos I, II, III y IV respectivamente, a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2006

IDAZKARIA/EL SECRETARIO



Sin.: Teodoro Olea Iturregi.: Fdo.